



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko abuztuaren 1a

6. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik erabatekoena adierazten baitu 1978ko Sanferminetan pairatutako polizia-erasoaren biktimen oroimenez eraikitako Gogoan eskulturako xaflaren lapurreta dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Azterketak gainditu dituztenen zerrenda (3. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik erabatekoena adierazten baitu 1978ko Sanferminetan pairatutako polizia-erasoaren biktimen oroimenez eraikitako Gogoan eskulturako xaflaren lapurreta dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko uztailaren 29an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik erabatekoena adierazten du Gogoan eskulturako xaflaren lapurreta dela eta. Eskultura hori ezarri zen, xaflan bertan ohartarazten den bezala, 1978ko Sanferminetan pairatutako polizia-erasoaren biktimen oroimenez; eta, memoriaren toki gisa erregistratutako elementua den aldetik, legebabes berezia dauka.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela ukitutako erakundeek neurri

egokiak har ditzaten gertatutakoa argitzeko, eraso horren egileei kasuko neurri administratiboak aplikatzeko eta xafla berehala birjar dadin bermatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa berresten du Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko abenduaren 26ko 29/2018 Foru Legearekiko eta Nafarroako memoria historiko eta demokratikoaren sustapenarekiko”. (10-19/DEC-00046).

Iruñean, 2019ko uztailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Azterketak gainditu dituztenen zerrenda.

Ikusita Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako goi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdiko kalifikazio-epaimahaiak uztailaren 30ean igorri duen zerrenda, azterketa gainditu duten izangaiak puntuazioaren arabera ordenatzen dituena –deialdia Kontuen Ganberako lehendakariaren 2019ko apirilaren 7ko ebazpenaren bidez onetsi zen eta 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 90. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu, biak ala biak 2019ko maiatzaren 10ekoak–, deialdiko 8. oinarriaren 1. apartatuan ezarritakoarekin bat, bidezkoa da zerrenda hori argitaratzea. Horrenbestez, lehendakaritza honek, bere ahalmen eta eskumenak erabiliz,

EBATZI DU:

Lehena.- Jasotzat ematea deialdiko kalifikazio-epaimahaiak igorritako zerrenda, aipatu lehiaketa gainditu duten izangaiak puntuazioaren arabera ordenatzen dituenena. Hona zerrenda hori:

1. Martínez de Estíbariz Ochagavía, Javier: 47,845

Bigarrena.- Zerrenda hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Erakundearen web orrian argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2019ko uztailaren 30ean

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

